

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

88/2025 Foru Agindua, otsailaren 12koa. Aldi baterako izendatzea María Luisa Rodríguez Garay, Laura Galdós Ruiz de Eguilaz, Ricardo Solaun González, Yosune Izquierdo Corres eta Amaya Beatriz Alfonso Acebo jaun-andreak, lehenetasun ordena horretan, 2025. urtean Tokiko Gobernu Batzarrari laguntzeko organoari dagozkion eginkizunak betetzeko, lanpostua aldi baterako izendapen bidez betetzen duen funtzionarioa ez dagoenerako, aldi baterako ezintasunagatik, oporregatik, norberaren eginkizunengatik edo beste arrazoi batzuegatik, betiere hilabete baino aldi laburragoetarako bada

2025eko urtarrilaren 10ean, Vitoria-Gasteizko Udalak A1 azpitaldeko karrerako funtzionario hauek aldi baterako izendatzeko eskatu du: María Luisa Rodríguez Garay, Laura Galdós Ruiz de Eguilaz, Ricardo Solaun González, Yosune Izquierdo Corres eta Amaya Beatriz Alfonso Acebo, lehenetasun ordena horretan, 2025. urtean Tokiko Gobernu Batzarrari laguntzeko organoari dagozkion eginkizunak betetzeko, lanpostua aldi baterako izendapen bidez betetzen duen funtzionarioa ez dagoenerako, aldi baterako ezintasunagatik, oporregatik, norberaren eginkizunengatik edo beste arrazoi batzuegatik, betiere hilabete baino aldi laburragoetarako bada.

Bat etorri Estaturako gaikuntza duten toki administrazioako funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 52.4 artikuluan xedatutakoarekin, lanpostuaren titularrak aldi baterako ezintasunagatik, oporregatik, norberaren eginkizunengatik edo beste arrazoi batzuegatik kanpoan badago, hilabete baino aldi laburragoan, toki erakunde bertako funtzionario bat aldi baterako izendatu ahal izango da, korporazioko lehendakariak proposaturik, autonomia erkidegoko araudiaren arabera.

128/2018 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarrian agindutakoa betez, eta Arabako Foru Aldundiaren Gobernuari, Antolaketari eta Araubide Juridikoari buruzko 10/2023 Foru Arauaren 24. artikuluan jasotzen diren eskudantzien ondorioz, eta nire eskumenekoak diren ahalak baliatuz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Aldi baterako izendatzea honako hauek:

María Luisa Rodríguez Garay.

Laura Galdós Ruiz de Eguilaz.

Ricardo Solaun González.

Yosune Izquierdo Corres.

Amaya Beatriz Alfonso Acebo.

Lehenetasun ordena horretan, 2025. urtean Tokiko Gobernu Batzarrari laguntzeko organoari dagozkion eginkizunak betetzeko, lanpostua aldi baterako izendapen bidez betetzen duen funtzionarioa ez dagoenerako, aldi baterako ezintasunagatik, oporregatik, norberaren eginkizunengatik edo beste arrazoi batzuegatik, betiere hilabete baino aldi laburragoetarako bada.

Bigarrena. Foru agindu hau ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Hirugarrena. Foru agindu hau jakinaraztea Vitoria-Gasteizko Udalarari eta Eusko Jaurlaritzaren Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari.

Laugarrena. Jakinarazten den foru agindu hau behin betikoa da administrazio bidean, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daiteke zuzenean Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera. Hori guztia, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. eta 124. artikuluetan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko otsailaren 12a

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko diputatua

LAURA PÉREZ BORINAGA

Lurralde Orekaren zuzendaria

JAVIER GORBEÑA GARCÍA